



2009ko agorrilaren 6an

HERRIKO KONTSEILUKO
Jaun-Andereak

Réf. : JMB/MHM – 1171/2009

**2009ko AGORRILAREN 4an, ASTERATEAREKIN, HERRIKO
ETXEAN IZAN DEN HERRIKO KONTSEILUKO
TXOSTENA**

BERTAN ZIREN : Guy POULOU Auzapez Jauna, , LOLOM, BERLAN jaunak, GHOSSOUB Anderea, LALANNE Jauna, WATIER DE CAUPENNE Anderea, MACHENAUD Jauna, MINTEGUI Anderea, HIRIART Jauna, IDIARTEGARAY-PUYOU Anderea, ANCIZAR Anderea, ANIDO Jauna, HARDOY, ORIVE, UGARTEMENDIA Andereak, GOURAUD, MINTEGUI Jaunak, DUGUET, TAPIA Andereak, MADRID Jauna.

AHALORDEAK : DUBARBIER Andereak M. LOLOM Jaunari, URBISTONDOY Jaunak IDIARTEGARAY-PUYOU Andereari, COSTE Jaunak GHOSSOUB Andereari, GOUAILLARDET Jaunak HIRIART Jaunari, GLOAGUEN Andereak ANCIZAR Andereari, M. ERRANDONEA Jaunak BERLAN Jaunari, BAZERQUE Andereak DUGUET Andereari.

BARKATUAK : IBARLOZA Jauna, CAPDEVILLE Anderea.

BERTAN ZIREN : BORDENAVE Jauna, Zerbitzuetako Zuzendari Orokorra, BOYE Jauna, Zerbitzu Teknikoetako Zuzendaria.

GAI ORDENA:

I/ 2009ko apirilaren 29ko Herriko Kontseilu bilkuraren txostenaren onarpena

II/ Gai orokorrak

- 1/ Herriko Kontseiluaren ordezkari Auzapezari
- 2/ Donibane hondartza Kluba : lankidetzaren Hitzarmena
- 3/ Sokoako Hondartza : zaintzarako Hitzarmena
- 4/ Donibane Lohizune / Ziburu Herriarte Sindikatuaren estatutuen aldaketa
- 5/ Irakurtze publiko sareko liburutegien informatizazioa : Diru laguntza eskaera
- 6/ Euskal Herria zeharkatzen duen abiadura handiko linea proiektua

7/ SIED : Hondakinen ezabaketa zerbitzu publikoaren kalitate eta prezioari buruzko urteko txostena

III/ Finantzako gaiak

- 1/Goi-mailako irakaskuntzarako bekak
- 2/ Zerga biltzaileari ordainsaria
- 3/ Goi-mailako irakaskuntzarako bekak (ERASMUS programa)
- 4/ Aitzinkontu nagusia : 1. Erabaki aldatzailea
- 5/ VBLC Volley Ball : 2009ko diru laguntza eskaera
- 6/ Places Fortes en Pyrénées Occidentales Elkarte
- 7/ Onarpena ez balioan

IV/ Herriko langileria

- 1/ Lanpostu sorkuntza
- 2/ Gradukako aitzinamendua barne promozioaren izenean
- 3/ Enpleguan laguntza kontratu baten baitako kontratatzea
- 4/ Lurraldeko erizain enplegu koadroko agenteei ordainsari erregimen ematea

V/ Gai teknikoak

- 1/ Merkatu Publikoa : Dei publikoa Bordagain Dorrearen zaharberritzea (2. zatia)
- 2/ Merkatu Publikoa : Dei publikoa Bordagain Dorrearen zaharberritzea (2. zatia)
- 3/ Baserri guneko elektrifikazioa : « génie civil France Télécom 2009 / Ingeniaritza Zibila France Télécom 2009 » Programa : Proiektua eta herriko etxearen finantzatze partearen onarpena
- 4/ Baserri guneko elektrifikazioa : EDF programa « 8. artikulua (Baiona) 2008 » : Proiektua eta herriko etxearen finantzatze partearen onarpena
- 5/ Baserri guneko elektrifikazioa : « Eclairage Public SDEPA (Herriko Argiak) – Communes urbaines (souterrain) (Hiriak (lur-azpia)) 2008 » programa : Proiektua eta herriko etxearen finantzatze partearen onarpena
- 6/ Baserri guneko elektrifikazioa : « Câblage France Télécom 2009 / France Télécom 2009 kableatzea » programa : Proiektua eta herriko etxearen finantzatze partearen onarpena
- 7/ Baserri guneko elektrifikazioa : « Câblage France Télécom 2009 / France Télécom 2009 kableatzea » : programa : Proiektua eta herriko etxearen finantzatze partearen onarpena

VI/ Auzapez jaunaren komunikazioak

VII/ Orotariko gaiak

Pierre BERLAN Jauna bilkurako idazkari izendatua da.

I/ 2009ko apirilaren 29ko Herriko Kontseilu bilkurako txostenaren onarpena

Herriko Kontseiluko bilkurako txostena aho batez onartua da, hastapeneko testuari bi aldaketa ekarri ondoren :

MINTEGUI Jaunak eskatzen du txostenean idatzia izan dadin bera eta bere taldekoak, 2007an jadanik, bide berriaren aurka zirela, hau gainazal edo lur azpikoa bada ere.

DUGUET Andereak nahi du zehaztua izan dadin haren mintzaldian ondoko esaldia ahantzia izan dela :

« Herriko hauteskundeak gertatu dira 2008ko martxoan eta pentsatzen dut Herriko Kontseiluak (kide berriak izanki bai gehiengoan eta bai oposizioan ere) haren jarrera erreberitu behar duela. »

II/ Gai Orokorrak

1/ Herriko Kontseiluaren ordezkari Auzapezari (Lurralde Elkargoen Kode Elkargoko L 2122-22 artikulua)

Ordezkaritza honek ondokoaren izenpetzeko baimena ematen du :

- Tokiko Arrantza Batzordearekin Récollets egoitzaren baitako lokalak urrik erabiltzeko hitzarmen bat (BAIONAKO Suprefeturak 2009ko apirilaren 2an onartua) ;
- 1. aldaketa Estudiantinarekin herriko etxeko aretoak urrik erabiltzeko hitzarmena (BAIONAKO Suprefeturak 2009ko apirilaren 2an onartua) ;
- Okupazio hitzarmen bat QUITTIC Jaunarekin kokaleku baterako Soko/Untxin hondartzan (BAIONAKO Suprefeturak 2009ko apirilaren 10ean onartua) ;
- Behin-behineko okupazio hitzarmen bat molde prekario eta ezeztazinean LE LITTORALEkin (BAIONAKO Suprefeturak 2009ko maiatzaren 11an onartua) ;
- Soko/Untxin Eskola Guneko aretoak urrik erabiltzeko hitzarmen bat ZIBURU eta URUÑAKO Ama-eskola eta Lehen Mailetako Herri arteko Sindikatua eta RICOUARD Zuzendari Anderearekin (BAIONAKO Suprefeturak 2009ko maiatzaren 14an onartua).

2/ Donibane hondartzako Kluba : Lankidetzaren hitzarmena

Txostengilea : Auzapez Jauna

Auzapez Jaunak herriko Kontseiluko kideei oroitarazten die DONIBANE LOHIZUN eta ZIBURUko herriek, urtero bezala, haurrentzako zerbitzu bat plantan jartzen dutela, uztaila eta agorrilan, Donibane hondartzako klubean.

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Auzapez Jaunari, ZIBURUko erakusle-laguntzaileei Ziburutar haurrak hartzeko gaitasuna ematen dien hitzarmen bat izenpetzeko **BAIMENA** ematen dio.

AHO BATEZ ONARTUA

3/ Sokoako hondartza : Zaintzarako hitzarmena

Txostengilea : Auzapez Jauna

Auzapez Jaunak, Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu komeni dela, 2009 urterako, Sokoia / Untxin hondartzaren zaintzarako langileriari dagozkion fresak itzultzeari buruzko hitzarmen bat izenpetzea, ZIBURUko hiria eta Untxineko Baxe Haranaren antolaketa eta Ziburu eta Urruñako Bideetako Herriarteko Sindikatuaren artean.

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- aldeko iritzia **EMATEN** dio hitzarmen proiektu horri,
- Auzapez Jaunari delako hitzarmen horren izenpetzeko **BAIMENA** ematen dio.

AHO BATEZ ONARTUA

4/ Donibane Lohizun / Ziburuko Herriarteko Sindikatuko estatutuen aldaketa

Txostengilea : Auzapez Jauna

Donibane Lohizun / Ziburu Herrien Hornikuntza eta Antolaketarako Herriarteko Sindikatua 1966ko martxoaren 15ean sortu da.

1999ko martxoaren 31ko prefetaren aginduz, helburu anitzeko Sindikatua, aukerazko gaitasunak dituen gaikako Sindikatua bilakatu zen, eta hastapeneko izenari, Urruñako herria gehitu zaio, hau sartu delarik saneamendu gaitasunerako.

2006ko urtarrilaren 1ean, ura, saneamendua eta saneamendu ez kolektibo gaitasunak, Euskal Herri Hegoaldeko Herrien Elkargoak hartu ditu beregain, eta 2009ko martxoaren 30ean, Donibane Lohizun eta Ziburu Herriek, « euri-urak » gaitasuna Sindikatua honi uzten zioten.

1966 – 2009 garaian zehar gertatutako aldaketak ikusirik, agertu da Sindikatuaren estatutuak berriz ikusi behar zirela.

Hemen ondoren onar dezazuen aurkeztua zaizuen proiektua, ondoko puntuetan oinarritzen da :

- Sindikatua aukerako Sindikatua gelditzen da: barne diren Herrien ordezkari gisa Donibane Lohizun / Ziburu hiriaren antolaketa eta garapenari lotuak diren operazio berezien egintzarako aukerako gaitasunak erabiltzeko parada, eta bete beharreko moldetan (mandatua, obragintza delegatua, ematea...) atxikitzen ditu.;

- Urruña Herria Sindikatutik ateratzeak – Euskal Herri Hegoaldeko Herrien Elkargoa sortu eta honek saneamenduaren ardura hartu ondoren – Sindikatuaren izena aldatu beharra eragin du.

Misio guziak badiaren antolaketa eta honen ingurumenaren zaintzaren inguruan birkokatuak direla kontsideratuz, Donibane Lohizun / Ziburu eta Urruña Herrien Hornikuntza eta Antolakuntzarako Herriarteko Sindikatua, **Donibane Lohizun / Ziburu badiako Herriarteko Sindikatua** bilaka daiteke.

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Lehenago aurkeztua izan den bezala, estatutuen aldaketa **ONARTZEN** du.

Oharrak :

MINTEGUI Jaunak galdegiten du zergatik « Euri-Urak » gaitasuna ez den aipatua estatutu aldaketan hori igurikatzen dugulako denek.

Azpimarratzen zaio gaur aurkeztua den aldaketa estatutuen « deshautse » bati dagokiola, « saneamendua » gaitasuna Herrien Elkargoari pasarazi zaionetik Urruñako erretiratzea kontutan hartzeko besteak beste. « Euriko urak » gaitasuna aitzinago aipatua da.

AHO BATEZ ONARTUA

5/ Irakurtze publiko sareko liburutegien informatizazioa : Diru laguntza eskaera

Txostengilea : Claude LOLOM Jauna

2009ko martxoaren 4ko deliberoaren ondorioz, Herriko Kontseiluak, herriak, irakurtze publiko sarerako material informatikoan eta kolekzioen kudeaketa logizialean horni dadin manatzeen elkargo bat sortzea onartu du.

Ziburu herriak : postu informatiko 1, inprimagailu 1, uhintzaile 1, eskuko-dutxeta 1, bibliotekonomia logizial 1 erosiko ditu eta bere langileriaren logizial horretarako formakuntza finantzatuko du.

Dei publiko prozedura bat abian jarria izan da merkatu publikoen Kodeko 33. artikulua aplikatuz, Azkaine, Arbona, Ziburu, Getaria, Donibane-Lohizun eta Sara herriak biltzen dituen manatze elkargo baten bitartez.

Kontsulta hiru zatitan banatzen da :

- 1. zatia : informatikako materialaren hornikuntza eta jartzea
- 2. zatia : ataria eta SIGBaren ostatatzea
- 3. zatia : SIGB lizentziak eta lotutako prestazioak.

2009ko ekainaren 16an bildurik, dei publikoen batzordeak ondoko atribuzioa eskaintzen du, emana den prezioa, Ziburuko liburutegiaren informatizazioaren beharra baizik ez duelarik hunkitzen :

Zatiaren zkia	Proposatutako enpresa	Prezioa
1	Go Micro	1 502,46€ ZGB
2	AID Computers	Objekturik gabe
3	AID Computers	448,50€ ZGB

Erosketa guzi horien prezioa : 1 950,96€ ZGB.

Herriak beharko ditu ere kode-barrak erosi.

Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra operazio honen partaidea izan daiteke erosketa hauek % 50eraino diruz lagunduz.

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Gorago zehaztuak diren merkatuak izenpetzeko **BAIMENA**, auzapezari ematen dio,
- Auzapezak Kontseilu orokorrari diru laguntza bat eskatzeko **BAIMENA** ematen dio.

AHO BATEZ ONARTUA

6/ Euskal Herria zeharkatzen duen abiadura handiko linea proiektua

Txostengilea : Auzapez Jauna

Delibero honen aldarrikapena baino lehen, DUGUET Andreak zerbait adierazi nahi du.

Auzapez Jaunak hitza ematen dio.

DUGUET Andrea : « Delibero honen aitzin-galdera pausatu nahi dugu, erran nahi baita, gai-ordenatik kentzea.

Zonbait ohar egin nahi genituzke

- 1) Hartzen ahal ote dugu **delibero** baliiodun bat, gure herria ez ezik baina Euskal Herri osoa hunkitzen duen gai bati buruz ?- (ikus barne araudiko aurre-hitza)
- 2) Pentsatzen dugu posible dela desirak adieraztea (ikus apirilaren 29an aurkeztutako mozioa) baina iruditzen zaigu **delibero** bat egokiagoa dela.
Harrituak gara delibero hau aipatutako herriarteko elkargoek manatu duten ikerketen emaitzak agertu aitzin hartua izan baita.
Horrela, eskatzen dugu **delibero hori, delako ikerketak komuniatuak izan ondoren hartua izan dadin**. Logikoagoa, arduratsuagoa iruditzen zaigu horrela herriarteko elkargoek daramatzaten ekimenak errespetatzen direlako.
- 3) Zuek ezagutzen dituzuen elementu batzuk aipatzen dituzue ere baina ez dugu hauen aztarnarik aurkitzen txostenean eta argudiorik gabeko iritzi bat ematen duzue.
- 4) Gainera, erabaki horietan, Estatua eta RFFi aldi berean, ikerketak uztea eta urrunago proiektu honi argitasunak ekar liezazkiekeen espertizak eta ikerketa guziak kontutan hartzea eskatzen zaie.

Ondorioz, ez dugu (Dominique Duguet - Gabriel Gouraud - Colette Bazerque) bozketan parte hartuko ».

Auzapez Jaunak dio ez duela inkoherentzia berezirik ikusten delibero hau hartzeko momentuan. Testu hau hunkituak diren lurraldeko 29 herrietan bozkatua izanen da. Proiektuak hunkitzen dituen Herriarteko elkargoetako hiru lehendakariak galdegin dute testua den bezala onartua izatea.

Auzapez Jaunak azpimarratzen du bestalde, ikerketek beranta dutela, RFFi eskatuak izan zaizkion elementu batzuk ez zaizkiola oraindik ikerketen arduradunari emanak izan, baina ez duela inkoherentziarik ikusten RFFen ikerketen gelditzean, gure ikerketenak igurikatzen ditugularik.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluari, gai-ordenako gai honen kentzeari buruz erabaki bat hartzea eskatzen dio.

Herriko Kontseiluak gehiengo batez erabakitzen du gai hau ez kentzea gai-ordenatik. DUGUET, BAZERQUE Andereek eta GOURAUD Jaunak kontra bozkatzen dute.

Auzapez Jaunak, delibero proiektua irakurtzen du :

Errobi, Errobi Aturri eta Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoek, hiruen artean, abiadura Handiko Linea proiektuak hunkitzen duen lurralde osoa osatzen dute.

Kide diren hogoi eta bederatzi Herriek, elkartasun izpiritu batek animaturik, aho batez adierazten dute, haien Herriko Etxeetako bozen bitartez, proiektu honen aurka direla, eta linea berri horren sortzea ere zalantzan jartzen dute.

ZIBURUko Herriak arrunt bat egiten du ekimen honekin.

Sare moderno baten garapena abantaila nagusi bat da Eskualdea, Pirinio Atlantikoak eta Euskal Herriarentzat. Akitaniak Abiadura Handiko Linea berri hori eta honek ekarriko duen PARISE eta MADRILEren arteko bidai denbora murriztea beharrezkoa du. Abiadura Handiko Linearen alde gaude bai eta bidetik trenbiderako modal aldaketaren alde ere.

Baina ez du kentzen ere, ekarriak izan zaizkigun elementuei begira, BAIONA-HENDAIA proiektua arrunt kritikagarria iruditzen zaigula. Gainera, kalte handiak ekar lizkioke Euskal Herriko ingurumen, ekonomi eta giza aberastasunari.

Horregatik, RFFek egin duen jadanik dagoen eta espainol sareari konektaturiko linearen berritze aurrekontuari esker, trafikoen emendatze esanguratsu bat aurreikusten da eta, dirudienez, muga blokatze arrisku guziak saihesten ditu.

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Gaur egun aurkeztua den Euskal Herriko Abiadura Handiko Linea proiektuaren trazatuari **EZESPENA ADIERAZTEN DU**, gure lurraldeetan zehar egin zulatze kaltegarria delako ;

- Horri buruz eramanak diren ikerketak bertan behera uztea **ESKATZEN DU** ;

- **ESTATUA ETA RFFi GALDEGITEN DIE** :

1. Orain dagoen bidea erreberitzea ;

2. Proiektu orokorra eta gure zinezko elkartzea burutik buru gure lurraldea trenbideak zeharkatzeak ekartzen dituen gogoeten hein berean ematea ;
3. Gure espertiza propioak eta proiektu horri buruz argitasunak ekar lituzketen ikerketa guziak kontutan hartzea (besteak beste BECKER Txostena) ;
4. Gure lurralde eta ingurumenaren berezitasun eta aberastasunen benetako onarpena.

Bozka unibertsaletik datorkigun zilegitasunaren izenean, gure lurraldean, hornikuntza egituratzaileez eta horrela gure biztanleen bidezko itxaropen eta beharrei erantzuteko erabakitze eskubidea aldarrikatzen dugu.

Oharrak :

MINTEGUI Jaunak azpimarratzen du bigarren bidea betirako baztertu behar dela, ikerketa ezberdinek diotenaren arabera, besteak beste suitzar kabinete batek dion bezala. Bestalde zehazten du deliberoa biziki argia dela eta txalotzen du bertan ekarria izatea hunkituak diren herrietako hautetsiek beraien lurraldeetan antolatu beharreko elementu egituratzaileez erabakitze eskubidea ukan behar dutela.

HAUTATZEN DU

7/ SIED / HEHS : Hondakinen ezabaketa zerbitzu publikoaren kalitate eta prezioari buruzko urteko txostena

Txostengilea : Auzapez Jauna

2000ko maiatzaren 11ko 2000-404 zenbakiko dekretuaren arabera, Hondakinen Ezabatze Herriarteko Sindikatuak helarazi du hondakinen ezabaketa zerbitzu publikoaren prezio eta kalitateari buruzko urteko txostena. Herriko Etxean eta SIED / HEHSen egoitzan irakur daiteke.

III/ Finantzako gaiak

Finantzako gaietan sartu aitzin, Auzapez Jaunak Herriko Kontseilua abisatzen du Kontuetako Eskualdeko Ganbarak kitoa eman diela 2005, 2006 eta 2007 urteetako Ziburu Herriko kontabilitatea gainbegiratu duten hiru diruzainei. Berri horretaz pozten gara eta zuekin partekatu nahi nuen.

1) Goi-mailako irakaskuntzarako bekak

Txostengilea : Claude LOLOM Jauna

Auzapez Jaunak proposatzen du, 2008/2009 unibertsitate urterako, Kontseilu Orokorrak ematen dituen goi-mailako irakaskuntzarako beken %10 Ziburuko ikasleei eskaintzea, laguntza hau gutienez % 65ekoa izanki.

2009ko uztailaren 27an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia onduz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- goi-mailako irakaskuntzarako beken %10eko eskaintza **ONARTZEN DU** gorago zehaztuak diren baldintzetan.

AHO BATEZ ONARTUA

2) Zerga Biltzaileari ordainsaria

Txostengilea : Claude LOLOM Jauna

Delibero honen aurkezpenean sartu aitzin, Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die 2009ko uztailaren 8ko gutun baten bidez jakin duela, Kontuetako Eskualdeko Ganbarak kitoa eman ziola Donibane-Lohizuneko Diruzainari Ziburu Herriaren kontuei buruz, 2004ko urtarrilaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra doan garaierako, 2009ko ekainaren 15eko ordonantzaren bitartez.

LOLOM Jaunak, ondotik, deliberoaren testua aurkezten du :

1982ko azaroaren 19ko 82/979 zenbakiko dekretuan eta 1983ko abenduaren 16ko aplikazio dekretuan zehaztua da, diruzain funtzioaren ondorioz dauden derrigorrezko ekarpenez gain, herriko zerga biltzaileek, hunkituak diren tokiko aginteei ekonomi, finantza eta diruzaintza mailako aholku eta laguntza ekarpenak eskaini behar dizkietela.

Ziburu Herriak, iraganean bezala, diruzainaren laguntza eskatu gogo du.

Ekarpen hauentzat, Zerga Biltzaileari, 1983ko abenduaren 16ko ministerio arteko aginduaren 4. artikulua xedapenen arabera kalkulaturako « Aholku » ordainsari bat eskainiko zaio. Ordainsaria, ezagutuak diren azken hiru urteetako aurrekontu xahutzeen urteko batez besteko prezioaren aplikazioarekin kalkulaturik da.

Eskaintako ordainsariak ez du inolaz ere, 150 indizeari dagokion urteko tratamendua aldi batez gainditzen ahalko.

2009ko uztailaren 27an bildu den finantza Batzordearen iritzia ondu eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- **ERABAKITZEN DU** Zerga Biltzailearen jakitatea, aurrekontu, finantza eta diruzaintza mailako aholkulari gisa erabiltzea, eta 1983ko abenduaren 16ko aginduaren 4. artikuluan ekarria den gehienezko kopurua duen « Aholku » ordainsari bat eskaintzea
- **ZEHAZTEN DU** 2008ko agorrilaren 1etik 2009ko ekainaren 30era doan garaierako, aholkularitza ordainsaria Anne-Marie DAUGAREIL Andereari emanen zaiola eta 2009ko uztailaren 1etik goiti, Francis SASSUS Jaunari emanen zaiola..

AHO BATEZ ONARTUA

Goi-mailako irakaskuntzarako bekak (ERASMUS programa)

Txostengilea : Claude LOLOM Jauna

Auzapez jaunak zehazten du ERASMUS programaren baitan, (europar mailako ikasle truketzea), Eskualdeetako Kontseiluek ikasle batzuei ERASMUS beka bat eskaintzen dietela.

Auzapez jaunak proposatzen du, 2008/2009 unibertsitate urterako, Eskualdeetako Kontseiluek ZIBURUko ikasleei ematen dizkieten beken %10a eskaintzea.

Uztailaren 27an bildu den finantza Batzordearen iritzia onduz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Diru laguntza bat **ESKAINTZEN DU** ERASMUS programaren markoan, Kontseilu Orokorra ematen dituen beken %10a gainditu gabe.

AHO BATEZ ONARTUA

3) Aitzinkontu nagusia : 1. Erabaki aldatzailea

Txostengilea : Claude LOLOM Jauna

Auzapez Jaunak biltzarrari azaltzen dio, aitzinkontu nagusia burutu ahal izateko, 1. erabaki aldatzaile bat aurreikusi behar dela. Erabiliak diren aitzinkontu artikuluen zuzenketa bat da.

IBILMOLDE SAILA

ARTIKULUA	AITZINKONTU ARTIKULUAREN TITULUA	SARTZEAK
74121	Baserri Elk Hor.	55 000
74122	Baserri Elk Hor 2. zatikia	- 55 000
74125	Her Era per hor.	- 6 500
74832	ZPren departamenduko funtsaren atribuzioa	6 500
778	Beste aparteko ekoizpenak	- 3 650
7788	Aparteko ekoizpen ezberdinak	3 650
IBILMOLDE SAILARKO HX OROTARA		0

2009ko uztailaren 27an bildu den finantza Batzordearen iritzia onduz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- erabaki aldatzailea gorago aurkeztua den bezala **HAUTATZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

4) VBLC Volley Ball : 2009ko diru laguntza eskaera

Txostengilea : Claude LOLOM Jauna

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei azaltzen die VBLC Volley Ball elkartearengandik 2009 kirol denboraldirako diru laguntza eskaera bat eskuratu duela. Auzapez Jaunak 800 € eskaintzea proposatzen du.

Hemen ekarriak diren kopuruak eman ahal izateko, komeni da Herriko Kontseiluak ondoko erabaki aldatzailea har dezan :

Ibilmolde saila : (2. HX)

<i>Ibilmolde saila : Xahutzeak</i>			
Artikulua	Funtzioa	Izena	Kopurua
6574	415	Zu pribatuko bes era lot ibil dl	800
658	O1	Usaiako kudeaketa orotariko karguak	- 800

--	--	--	--

2009ko uztailaren 27an bildu den finantza Batzordearen iritziaren ondorioz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- VBLC Volley Ball Elkarteari 800 €ko diru laguntza **ESKAINTZEN DIO**
- erabaki aldatzailea beherago aurkeztua den bezala **HAUTAZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

5) Places Fortes en Pyrénées Occidentales Elkartea

Txostengilea : Claude LOLOM Jauna

«Places Fortes en Pyrénées Occidentales » elkarteak erabaki du, aho batez, 2009 aitzinkontua onartzea eta kideak deitzea delako aitzinkontu horretan agertzen den finantzatze gehigarri beharrari aurre egiteko.

Aginteen bizkar den finantzatze gehigarri beharra 4 200,59 €koa da, Zibururi eskatzen zaion parte hartzea 796,26 €koa da.

Herriko Kontseiluko kideei eskatzen zaie Auzapez Jaunari eskatua den 796,26 €ko parte hartzea ordaintzeko baimena ematea, beharrezkoak diren kredituak 2009ko hastapeneko aitzinkontuko 6 281. artikuluan ekarriak direlarik.

2009ko uztailaren 27an bildu den finantza Batzordearen iritziaren ondorioz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Places Fortes en Pyrénées Occidentales Elkartek eskatutako parte hartzea.
ONARTZEN DU

Oharrak :

MINTEGUI Jaunak galdegiten du zeri dagokion diru kopuru horrek.

LALANNE Jaunak azpimarratzen du, hastapenean aurreikusi ez zen flyerren argitaratzeak dakarren xahutze bati lotua dela.

AHO BATEZ ONARTUA

Onarpena ez balioan

Txostengilea : Claude LOLOM Jauna

Auzapez Jaunak azaltzen du Zerga Etxeko Kontuzainak ez dituela azpi honetako titulu eta sartzeen bilketa lortu ahal izan eta, ondorioz, orotara 4 945,20 €ko onarpena ez balioan eskatzen du.

Tituluaren jaulkipen eguna	Tituluaren erreferentzia	Zordunaren deitura	Berreskuratu beharreko diru kopurua	Eskaeraren arrazoina
2006/11/27	R 15	GLOAGUEN Roger	28,00	Pertsona desagertua-zendua
2007/11/23	R 15	GLOAGUEN Roger	28,00	Pertsona desagertua-zendua
2008/09/18	R 15	GLOAGUEN Roger	28,00	Pertsona desagertua-zendua
2005/10/13	T539	ELECMO	171,70	Hestea aktibo eskasa RJJJen
2006/03/30	T148	ELECMO	1 919,90	Hestea aktibo eskasa RJJJen
2006/08/07	T338	ELECMO	2 769,60	Hestea aktibo eskasa RJJJen
		OROTARA	4 945,20	

Auzapez Jaunak biltzarrari proposatzen dio titulu hauen ez balioaren onarpena adieraztea eta ondoko 3. erabaki aldatzailea onartzea :

Ibilmolde saila : (3. HZ)

<i>Ibilmolde saila : Xahutzeak</i>			
<i>Artikulua</i>	<i>Funtzioa</i>	<i>Izena</i>	<i>Kopurua</i>
654	O1	Berreskura ezineko zorren gaineko galtzeak	5 000,00
658	O1	Usaiako kudeaketa orotariko karguak	- 5 000,00

2009ko uztailaren 27an bildu den finantza Batzordearen iritziaren ondorioz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Gorago aurkeztuak diren tituluen ez balioa onartzea **ADIERAZTEN DU**.
- Erabaki aldatzailea beherago aurkeztua den bezala **HAUTATZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

IV/ Herriko langileria

1/ Lanpostu sortzeak

Txostengilea : Claude LOLOM Jauna

Auzapez jaunak Herriko Kontseilua abisatzen du ondoko lanpostuak sortu behar daitezkeela :

1/ Klase normaleko puerikultriza gradua eta herriko haurtzaindegiaren zuzendaria den agente batek urte bateko disponibilitate bat hartu ondoren, komeni da zerbitzu honen antolakuntza berrikustea.

Gure zerbitzuetako haur gazteen hezitzaile batek, Estatuko diploma eta hiru urteko esperientzia profesionala izanik, zuzendaritza kargu hori ziurta dezake, Estatuko diploma duen puerikultriza baten laguntzaz gozatuz gero edo, ezin bestean, haur gazteekin urte bateko esperientzia profesionala eta Estatuko diploma dituen erizain batena.

Dei publiko eta elkarrizketa baten ondotik, Ospitaleko Funtzio Publikotik etorri eta eskatutako baldintzei erantzuten dien klase normaleko agente erizain bat hautatua izan da. Beraz, horren hartzea proposatua izan da, karguz aldatu ondoren, ahal bezain fite, eta kasu horretan, haren enplegatzeari lotutako formalitateak bete orduko.

2/ 1. klaseko laguntzaile tekniko nagusi bat erretretara joan da 2007ko uztailaren 1ean. Zentro Teknikoko beste zerbitzuetan emana den langile aldatetaren efektuz, komeni da 2. klaseko laguntzaile tekniko lanpostu bat sortzea eta bideetako garbiketa zerbitzuan jartzea. Entseguan hartua izan den agente batek eskatzen dioguna osoki betetzen du. Beraz, proposatzen dugu bera 2. klaseko laguntzaile tekniko gisa hartzea, denbora osoz, heldu den irailaren 1etik goiti.

3/ Enpleguan Laguntzako Kontratu baten markoan 2007ko uztailaren 1etik 2009ko ekainaren 30era enplegatutako agente bat 2009ko saioko kanpo konkurtsoan onartua izan da, kirol eta fisiko aktibitate hezitzaile gisa. Haren enplegu garaian, agente horrek bere gaitasuna erakutsi du, 13-17 urteko nerabeentzat animazioak plantan jarri eta garatuz, aktibitateen sustapena ziurtatuz heziketa eta giza mailako partaideei begira besteak beste. Horrela, zerbitzu horren segida ziurtatzeko gisan, proposatua da bera enplegatzea kirol eta fisiko jarduera hezitzaile bezala, denbora osoz ; izendatze hori heldu den irailaren 1etik goiti gerta daiteke.

2009ko uztailaren 27an bildu den finantza Batzordearen iritzia eta azalpenaren ondorioz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- 2009ko irailaren 1etik goiti gauza daitekeen klase normaleko erizain enplegu baten sortzea **ERABAKITZEN DU**.
- 2009ko irailaren 1etik goiti gauza daitekeen 2. klaseko laguntzaile tekniko baten enplegu baten sortzea **ERABAKITZEN DU**.
- 2009ko irailaren 1etik goiti denbora osoko kirol eta fisiko aktibitateen hezitzaile enplegu baten sortzea **ERABAKITZEN DU**.
- Ondorioz, langileriaren arbela **ALDATZEN DU**.

Oharrak :

MINTEGUI Jaunak dio ez dela bidezkoa lanpostu sortze hauek Herriko Kontseiluan kontratatze edo hautaketak egin ondoren. Herriko Kontseilua, lehenagotik behar daiteke erabaki horietan sarrarazi.

AHO BATEZ ONARTUA

2/ Barne promozioaren baitako gradu aitzinatzea

Txostengilea : Claude LOLOM Jauna

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu 2009ko barne promozioaren markoan, bi agente sartuak izan direla bakoitza gaitasun zerrendetan erredaktore gisa azterketa profesional baten ondorioz eta obretako lurralde kontrolatzaile gisa. Agenteei emandako betebeharrak eta gradu horien egokitzea eta hauen sustatzeko nahia kontutan harturik, proposatua da denbora osoz izendatzea, lurraldeko erredaktore gisa, alde batetik, eta obretako lurralde kontrolatzaile gisa beste aldetik, heldu den irailaren lehenetik goiti.

2009ko uztailaren 27an bildu den finantza eta langileria Batzordearen iritzia onduz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- 2009ko irailaren 1etik goiti, denbora osoko lurralde erredaktore lanpostu bat sortzea **ERABAKITZEN DU**.
- 2009ko irailaren 1etik goiti, denbora osoko obretako lurralde kontrolatzaile lanpostu bat sortzea **ERABAKITZEN DU**.
- Ondorioz, langileriaren arbela **ALDATZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

3/ Enpleguan laguntza kontratu baten baitako kontratatzea

Txostengilea : Claude LOLOM Jauna

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu Contrat d'Accompagnement dans l'Emploi (CAE) delakoak (Enpleguan Laguntza Kontratua (ELK)) lanpostu baten lortzeko giza eta profesionalak zailtasunak dituzten pertsona langabetuen gizarteratzea laguntzea duela helburu. Kontratu hau komertzio kanpoko nagusiei zuzentzen zaie (lurralde agintek, 1901 lege peko elkarteak,...).

Enpleguan laguntza kontratu bat (CAE / ELK) gauzatu aitzin, enplegatzaileak hitzarmen bat, Estatuaren kontuko aritzen den erakunde edo instituzio batekin izenpetu behar du.

Enpleguan laguntza kontratu bat burutzearekin, enplegatzaileak laguntza ezberdinak lor ditzake: gizarte kotizazio arintze, muga batzuen baitan, Estatuaren laguntza SMICaren ehuneko batean.

Hautzaro Ttipia CAP / PGZ postaz prestatzen duen neska gazte batentzat, eta horrela Marinela eskolan jartzeko,

2009ko uztailaren 27an bildu den finantza eta langileria Batzordearen iritzia onduz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Auzapez jaunari ANPERekin, 2009ko uztailaren 15etik goiti, denbora osoz eta 12 hilabeteko eperako kontratuko agente bat enplegatzeko hitzarmena izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**

AHO BATEZ ONARTUA

4/ Lurraldeko erizain enplegu koadroko agenteei ordainsari erregimena ematea

Txostengilea : Claude LOLOM Jauna

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu 1984ko urtarrilaren 26ko legearen 88. artikulua tokiko aginteetako delibero biltzar eta haien tokiko erakundeei haien langileriaren ordainsari erregimena delibero baten bidez finkatzeko gaitasuna ematen diela, eta hau Estatuko zerbitzu ezberdinek dutenaren maila berdinean (parekotasunaren printzipioa).

2007ko abenduaren 12ko deliberoaren bitartez, Herriko Kontseiluak, delibero bakar batetan, Ziburu Herriko agenteei eman ordainsari erregimen osoa berriz hartu zuen.

Etorkizunean erizain bat kontratatu dezagun, kopuru forfataria 90 €tan finkatua duen sari berezi bat, hartzailearen urteko soldataren 1900./13koa duen hilabeteroko kopuruko sujerio berezi ordainsari bat eta zerbitzuko saria plantan jartzea proposatua da.

2009ko uztailaren 27an bildu den finantza eta langileria Batzordearen iritzia onduz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- hemen aurkeztua izan den ordainsari erregimena eskaintzea **ONARTZEN DU**
- Auzapez Jaunari agenteak beregain dituen ardura eta haren aritzeko moldearen arabera norbanakako atribuzioak abian jartzeko **BAIMENA EMATEN DIO.**

AHO BATEZ ONARTUA

V/ Zerbitzu teknikoak

1/ Merkatu Publikoa : Bordagain Dorrea zaharberritzeko dei publikoa (2. zatia)

Txostengilea : Henri ANIDO Jauna

Delibero hau aurkeztu aitzin, GOURAUD Jaunak ondokoa adierazten du :

« V puntua nahi nuke aipa dezagun (ZerbitzuTeknikoak).

1) Merkatu publikoa : D.P. Bordagain Dorrearen zaharberritzeko (2. zatia)

2) Merkatu publikoa : D.P. Bordagain Dorrearen zaharberritzeko (2. fasea).

Uztailaren 27an, astelehenarekin, Dei Publikoetako Batzordea bildu da 2. faseko gutunen irekidurarako. Zortzi gutun garaiz hartuak + bat garaitik kanpo etorria. Kari horretara, jakin dugu merkatu publikoen araudiak diola, gutun bat beranta ttipienarekin etortzen bada ere, eliminatu behar dela. Dei Publiko Batzordeak ez du lehia berriz emateko gaitasunik. Batzordeak hala egin du eta berantarekin etorria baztertu du.

Hala ere, arazoa agertzen da Dorreko 2. zatia Dei Publikorako.

Hots, ekainaren 19an, ostiralarekin, Dei Publiko Batzordea Dorreko 2. zatiko gutunen irekitzeko bildu da.

Gutun bat berantarekin ailegatu da eta Batzordeko gehiengoak (bi pertsonak kontra bozkatu dutelako) fede onez berriz lehia jartzea erabaki du.

Hein horretara heldu eta, erabakia zuzentzeko errekurso bat egin daitekeela hala berantegi da »

ANIDO Jaunak delibero proiektua irakurtzen du ondoren :

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu Bordagain Dorreko zaharberritzeari buruzko bi kontsulta berriez :

- ✓ elektrizitate loteari (7 zkiko lotea) egokitutako prozeduran, emaitzarik ekarri ez duen dei publikoaren ondoren (merkatu publikoetako kodeko 27-3 eta 28 artikulua), 2009ko maiatzaren 7an, argitaratze garaian abian jarritako kontsulta,
- ✓ estankotasun lotea (4 zkiko lotea), Tindua loteari (9 zkiko lotea) egokitutako prozeduran, emaitzarik ekarri ez duen dei publikoaren ondoren (merkatu publikoetako kodeko 31-1-1 eta 65tik 66 arteko artikulua), 2009ko maiatzaren 7an, argitaratze garaian abian jarritako kontsulta.

Argitaratzeak :

- 2009ko martxoaren 18ko Sud Ouest Egunkaria
- 2009ko martxoaren 10eko herriko etxeko gunea

Gutunak hartzeko azken eguna : 7 zkiko lotea (2009ko ekainaren 11a, 12:00etan) eta 4 eta 9 zkiko loteak (2009ko ekainaren 19a 12:00etan).

Atxikiak izan diren dozierren kopurua : 4 dozier 7 zkiko loterako eta 10 dozier 4 eta 9 zkiko loteetarako.

Dei Publikoetako Batzordea bildu da 1. eta 2. gutun-azalak irekitzeko 2009ko ekainaren 19an 14:00etan

Hautagai guztiak 2. gutunaren irekidurarako onartuak izan dira 2. artikuluan bildutako prezioak hartu ondoren eta obren iraupena engaiamendu aktaren 3. artikuluan (burutze epeak) ; batzordeak eskatu du eskaintzen azterketa egina izan dadin.

Dei Publikoetako Batzordea berriz bildu da 2009ko ekainaren 26an, 11:30etan, obralaria, MATVEIEFF Anderea eta AGUERRE Jaunak egin eskaintzen azterketaren txostena ikertzeko, ondoko atribuzio irizpide haztatuetan oinarriturik (kontsulta araudiaren 4. artikulua) :

- ✓ Prestazioen prezioa (10 gaineke notazioa)
- ✓ Balio teknikoak - Erreferentziak (8 gaineke notazioa)
- ✓ Epeak (4 gaineke notazioa)

Eta ondoko merkatuak banatu ditu :

- | | |
|---|---------------------------|
| ✓ 4 zkiko lotea – ESTANKOTASUNA SAPari | Prezioa = 4 359.78 € ZGB |
| ✓ 7 zkiko lotea – ELEKTRIZITATEA INEori | Prezioa = 11 818.45 € ZGB |
| ✓ 9 zkiko lotea – TINDUAK BISCAYri | Prezioa = 8 538.17 € ZGB |

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- 2009ko ekainaren 26an bildu den Dei Publikoetako Batzordearen erabakiak, **ONARTZEN DITU**
- Auzapez Jauna gorago aipatuak izan diren onuradunekin merkatuak sinatzera eta kontsultaren klausulak betearaztera **BAIMENTZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

2 – Merkatu Publikoa : Dei publikoa Bordagain Dorrearen zaharberritzeko (2. fasea)

Txostengilea : Henri ANIDO Jauna

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu, Bordagain Dorreko zaharberritzeko merkatu publikoko kontsultaren emaitzak diru mailan zoin onak diren ikusirik, azken fatxada eta kapera zaharberritzeko prozedura berri bat abian jartzea erabakia izan dela, hastapenetik aurreikusitako aitzinkontuan egonez. Irekia izan den dei publiko kontsulta eta zehaztutako prezioen zerrendagiriak jarraikiz molde honetan 5 lotetan zatitua izan da :

- ✓ 1 zkiko lotea – ALDAMUAK
- ✓ 2 zkiko lotea – HARGINTZAK
- ✓ 3 zkiko lotea – ARMAZOIA ESTLAKETA
- ✓ 4 zkiko lotea – ZINKERIA
- ✓ 5 zkiko lotea – PINTURAK

Argitaratzeko igorpena : 2009ko uztailaren 1a.

Argitaratzeak :

- 2009ko uztailaren 4ko Sud Ouest Egunkaria
- 2009ko ekainaren 30eko herriko etxeko gunea.

Atxikiak izan diren dozierren kopurua : 12.

Gutunak hartzeko azken eguna : 2009ko uztailaren 22a 12:00etan

Gordailuen kopurua : 8 gutun + 1 13:00etan 12:00etan orde.

Dei Publiko Batzordea 1. eta 2. gutun-azalak irekitzeko bildu da : 2009ko uztailaren 27a 9:30etan.

Batzordeak aho batez erabaki du, hautagai guziak onartzea 2. gutun-azalaren irekitzean, 2. artikuluan bildutako prezioak hartu ondoren eta obren iraupena engaiamendu aktaren 3. artikuluan (burutze epeak) ; batzordeak eskatu du eskaintzen azterketa egina izan dadin.

Dei Publikoetako Batzordea berriz bildu da 2009ko uztailaren 30ean, 16:00etan :

- Obralaria, MATVEIEFF Anderea eta AGUERRE Jaunak, ondoko atribuzio irizpide haztatuetan oinarrituz (kontsulta arautegiko 4. artikulua) egin eskaintzen txostena aztertzeke :

- ✓ Prestazioen prezioa (10 gaineke notazioa)
- ✓ Balio teknikoa - Erreferentziak (8 gaineke notazioa)
- ✓ Epeak (4 gaineke notazioa)

Eta ondoko merkatuak esleitu ditu :

✓ 1 zkiko lotea	Prezioa =	€ ZGB
✓ 2 zkiko lotea	Prezioa =	€ ZGB
✓ 3 zkiko lotea	Prezioa =	€ ZGB
✓ 4 zkiko lotea	Prezioa =	€ ZGB
✓ 5 zkiko lotea	Prezioa =	€ ZGB

1, 2, 3, 4, 5 loteetako merkatuak esleitzeko.

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- 2009ko uztailaren 27 eta 30ean bildu den Dei Publikoetako Batzordearen erabakiak **ONARTZEN DITU**,
- Auzapez Jauna merkatuak sinatzera eta kontsultaren klausulak betearaztera **BAIMENTZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

3/ Baserri guneko elektrifikazioa : « génie civil France Télécom 2009 / ingeniari-tza zibila France Télécom 2009 » Programa : Proiektua eta herriko etxearen finantzatze partearen onarpena

Txostengilea : Guy LALANNE Jauna

Auzapez jaunak Herriko Kontseilua abisatzen du Pirinio-Atlantikoetako DEPARTAMENDU ELEKTRIFIKAZIO SINDIKATUari, Dorreko karrika (6. or « Bordagain ») eta Pumpenia karrika hetsian sareen lurperatzeari lotuak diren Ingeniaritza Zibilaren obrak aztertzea eskatu diola.

Departamenduko Sindikatuko Lehendakari Andereak, ETDE enpresari esleitu zaizkion obren prezioaren estimazioa eman dio Herriari.

Auzapez Jaunak azpimarratzen du obra hauek « génie civil France Télécom 2009 / ingeniari-tza zibila France Télécom 2009 » Baserri guneko Elektrifikazio Programan idatziak izanen direla eta Herriko Kontseiluari xahutzearen diru kopurua onartzea eta obren finantzazioa bozkatzea proposatzen dio.

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- gorago aipatuak izan diren obrak burutzea **ERABAKITZEN DU**,
- obren kargua Departamenduko Elektrifikazio Sindikatuari **UZTEN DIO**,
- beherago zehaztuak diren obren prezioa eta xahutzeak **ONARTZEN DITU** :
 - Obren prezioa ZGB 33 801.77 €
 - Kudeaketa fresak eta ezustekoak 4 959.49 €
 - OROTARA 38 761.26 €
- 35 844.26 Euro, hornidurazko fondo gisa, Sindikatuko Zerga-biltzailearen Kutxan ematera **ENGAIATZEN DA**, fondo librean, obren finantzatzea ondoko moldean ziurtatzeko :
 - France Télécom diru laguntzak 2 917.00 €
 - Herriaren parte hartzea 35 844.26 €

Herriko behin betiko kontribuzioa, obren behin betiko zenbaketa egin ondoren zehaztuko da.

AHO BATEZ ONARTUA

4/ Baserri guneko elektrifikazioa : EDF programa « article 8 (Bayonne) 2008 / 8. artikulua (Baiona) 2008 » : Proiektua eta herriko etxearen finantzatze partearen onarpena.

Txostengilea : Guy LALANNE Jauna

Auzapez jaunak Herriko Kontseilua abisatzen du Pirinio Atlantikoetako DEPARTAMENDUKO ELEKTRIFIKAZIO SINDIKATUari, Dorreko karrika (6. or « Bordagain ») eta Pumpenia karrika hetsian sareen lurperatzeari lotuak diren Ingeniaritza Zibilaren obrak aztertzea eskatu diola.

Departamenduko Sindikatuko Lehendakari Andereak, ETDE enpresari esleitu zaizkion obren prezioaren estimazioa eman dio Herriari.

Auzapez Jaunak azpimarratzen du obra hauek « article 8 (Bayonne) 2008 / 8. artikulua (Baiona) 2008 » Baserri guneko Elektrifikazio Programan idatziak izanen direla eta Herriko Kontseiluari xahutzearen diru kopurua onartzea eta obren finantzazioa bozkatzea proposatzen dio.

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- gorago aipatuak izan diren obrak burutzea **ERABAKITZEN DU**,
- obren kargua Departamenduko Elektrifikazio Sindikatuari **UZTEN DIO**,
- beherago zehaztuak diren obren prezioa eta xahutzeak **ONARTZEN DITU** :
 - Obren prezioa ZGB 160 000.64 €

- Pausatutako zutoinen tratatzea (23) 847.25 €
- Kudeaketa fresak eta ezustekoak 23 475.68 €

OROTARA: 184 323.57 €

- 109 258.12 hornidurazko fondo gisa, Sindikatu Zerga-biltzailearen Kutxan ematera **ENGAIATZEN DA**, fondo librean, obren finantzatzea ondoko moldean ziurtatzeko :
 - EDFen partehartzea
(diru lag xahutze 77 116.76 € ZGBetan mugatua) 30 846.70 €
 - SDEPAren partehartzea
(diru lag xahutze 77 116.76 € ZGBetan mugatua) 29 103.87 €
 - SDEPAk aitzin finantzatutako B.E.Z.a 15 114.88 €
 - Herriaren parte hartzea 109 258.12 €

Herriko behin betiko kontribuzioa, obren behin betiko zenbaketa egin ondoren zehaztuko da.

- herriko eremu pribatuan gerta daitekeen dohainik eskaini beharreko zortasuna **ONARTZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

5/ Baserri guneko elektrifikazioa : « Eclairage Public SDEPA (Herriko Argiak) – Communes urbaines (souterrain) (Hiriak (lur-azpia)) 2008 » programa : Proiektua eta herriko etxearen finantzatze partearen onarpena

Txostengilea : Guy LALANNE Jauna

Auzapez jaunak Herriko Kontseilua abisatzen du Pirinio Atlantikoetako DEPARTAMENDUKO ELEKTRIFIKAZIO SINDIKATUari, Dorreko karrika eta Pumpenia karrika hetsian lurpeko herriko argien obrak aztertzea eskatu diola (8/2008 artikuluari lotua).

Departamenduko Sindikatuko Lehendakari Andereak, ETDE enpresari esleitu zaizkion obren prezioaren estimazioa eman dio Herriari.

Auzapez Jaunak azpimarratzen du obra hauek Eclairage Public SDEPA (Herriko Argiak) – Communes urbaines (souterrain) (Hiriak (lur-azpia)) 2008 » Baserri guneko Elektrifikazio Programan idatziak izanen direla eta Herriko Kontseiluari xahutzearen diru kopurua onartzea eta obren finantzazioa bozkatzea proposatzen dio.

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- gorago aipatuak izan diren obrak burutzea **ERABAKITZEN DU**,
- obren kargua Departamenduko Elektrifikazio Sindikatuari **UZTEN DIO**,

beherago zehaztuak diren obren prezioa eta xahutzeak **ONARTZEN DITU :**

- Obren prezioa ZGB 50 133.76 €

- Kudeaketa fresak eta ezustekoak	8 676.25 €
OROTARA	67 810.00 €
- 55 095.45 € hornidurazko fondo gisa, Sindikatu Zerga-biltzailearen Kutxan ematera ENGAIATZEN DA , fondo librean, obren finantzatzea ondoko moldean ziurtatzeko :	
- SDEPAren partehartzea (diru lag xahutze 28 507.96 € ZGBetan mugatua)	7 126.99 €
- SDEPAk aitzin finantzatutako B.E.Z.a	5 587.56 €
- Herriaren parte hartzea	55 095.45 €

Herriko behin betiko kontribuzioa, obren behin betiko zenbaketa egin ondoren zehaztuko da.

AHO BATEZ ONARTUA

6/ Baserri guneko elektrifikazioa : « Câblage France Télécom 2009 / France Télécom 2009 kableatzea » programa : Proiektua eta herriko etxearen finantzatze partearen onarpena.

Txostengilea : Guy LALANNE Jauna

Auzapez jaunak Herriko Kontseilua abisatzen du Pirinio Atlantikoetako DEPARTAMENDUKO ELEKTRIFIKAZIO SINDIKATUari eskatu diola, enpresa eta France Télécomen artean izenpetua izan den hitzarmenak dioen bezala, ondoko operazioari lotuak diren telefono kableatze ikerketa eta obren kostua jakinaraztea : Dorreko karrika eta Pumpenia karrika hetsian, sareen lurperatzeari lotutako FT Kableatzea - 8/2008 artikuluari lotua..

Departamenduko Sindikatuko Lehendakari Andereak, France Télécomek burutu beharreko obren prezioaren estimazioa eman dio Herriari.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluari xahutzearen diru kopurua onartzea eta obren finantzazioa bozkatzea proposatzen dio.

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- gorago aipatuak izan diren obrak burutzea **ERABAKITZEN DU**,
- operazioaren jarraipenaren kargua Departamenduko Elektrifikazio Sindikatuari **UZTEN DIO**,

- beherago zehaztuak diren obren prezioa eta xahutzeak **ONARTZEN DITU** :
 - Obren ikerketen prezioa ZK 7 590.00 €
 - Kudeaketa fresak eta ezustekoak 0.00 €
 - OROTARA 7 590.00 €

- 3 719.00 Euro hornidurazko fondo gisa, Sindikatu Zerga-biltzailearen Kutxan ematera **ENGAIATZEN DA**, fondo librean, obren finantzatzea ondoko moldean ziurtatzeko :
 - France Télécomen diru laguntzak 3 870.90 €
 - Herriaren parte hartzea 3 719.10 €

AHO BATEZ ONARTUA

7/ Baserri guneko elektrifikazioa : « Câblage France Télécom 2009 / France Télécom 2009 kableatzea » programa : Proiektua eta herriko etxearen finantzatze partearen onarpena.

Txostengilea : Guy LALANNE Jauna

Auzapez jaunak Herriko Kontseilua abisatzen du Pirinio Atlantikoetako DEPARTAMENDUKO ELEKTRIFIKAZIO SINDIKATUari eskatu diola, enpresa eta France Télécomen artean izenpetua izan den hitzarmenak dioen bezala, ondoko operazioari lotuak diren telefono kableatze ikerketa eta obren kostua jakinaraztea : Dorreko karrika eta Pumpenia karrika hetsian, sareen lurperatzeari lotutako FT Kableatzea - 8/2008 artikuluari lotua..

Departamenduko Sindikatuko Lehendakari Andreak, France Télécomek burutu beharreko obren prezioaren estimazioa eman dio Herriari.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluari xahutzearen diru kopurua onartzea eta obren finantzazioa bozkatzea proposatzen dio.

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- gorago aipatuak izan diren obrak burutzea **ERABAKITZEN DU**,
- operazioaren jarraipenaren kargua Departamenduko Elektrifikazio Sindikatuari **UZTEN DIO**,

- beherago zehaztuak diren obren prezioa eta xahutzeak **ONARTZEN DITU** :
 - Obren ikerketen prezioa ZK . 2 300.00 €
 - Kudeaketa fresak eta ezustekoak 0.00 €
 - OROTARA 2 300.00 €

- 1 127.00 Euro hornidurazko fondo gisa, Sindikatu Zerga-biltzailearen Kutxan ematera **ENGAIATZEN DA**, fondo librean, obren finantzatzea ondoko moldean ziurtatzeko:
 - France Télécomen diru laguntzak 1 173.00 €
 - Herriaren parte hartzea 1 127.00 €

AHO BATEZ ONARTUA

VI/ Auzapez jaunaren komunikazioak

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu justizia erabaki bat hartu duela Kasazio Auzitegiak, COPELEC sozietatea 21 636,53 euro, legezko tasaren arabera berandutzako inereekin, Ziburuko Herriari ordaintzera behin betiko kondenatuz, sozietate honi behar ez zenean faktura bat pagatzeagatik,.

VII/ Orotariko gaiak

1. galdera

DUGUET Andereak adierazten du 2008ko ekainaren 24an, Diablotine (Deabruttoa) deitua den nabeta elektriko **proba** proiektu bat burutzea erabaki genuela. Auzapez jauna, gure iritzia galdegiten zenigun ATCRBekin izenpetu beharreko hitzarmen bati buruz.

2009ko apirilean, ez duzu proiektu hori errepikatu nahi izan eta, ondorioz, ez da hastapeneko aitzinkontuan agertzen.

Ez dugu ulertzen zergatik Herriko Kontseilua baztertua den proiektu horretatik eta aitzinkontua ez den molde egokian emendatua, behar den bezala.

Zergatik jarrera aldaketa hori eta jakin genezake zoin erakunderekin izenpetu dugun hitzarmen berri bat ?

Auzapez Jaunak erantzuten du aurten Herriko Etxean eginga izan den proposamena 20 000 euro baino guttiagokoa dela eta ez dela beharrezkoa Herriko Kontseilua kontsultatzea. ATCRB sozietateak aurkeztu duen prezioa, jazkoa baino askoz apalagoa da, prestazioak apaltzea erabaki dugulako (garaia uztailearen 15etik agorrilaren 22ra, egunero igandeaz aparte eta 14:00etatik 19:00etara murriztua).

2. galdera

DUGUET Andereak adierazten du GARAY Jaunak deitzen gaituelarik herriko aldizkarian agerrarazi behar dugun artikulurako, epe biziki laburra uzten digula beti presaka dabilzalako. Artikulu hori apirilaren 5ean helarazi diogu eta agorrilaren 4a da gaur, erran nahi baita 4 hilabete berantago. Noiz aterako da ondoko herriko aldizkaria ?

Auzapez Jaunak dio GARAY Jaunak istripu bat jasan duela eta agorrila bukaera arte bederen gelditua dela. Herriko aldizkariak pixka bat berantago atera behar luke.

3. galdera

Auzapez jauna, Poirmeur Jaunari « obra baimena » eskaini diozu blokeetako etxerako horretaz egin lezakeen erabilpenak hastapeneko helburua aldatzen zuelarik.

Oroitarazteko : biltegi bat da eta Poirmeur Jaunak arno ekoizpen unitate gisa erabili gogo zuen.

Poirmeur Jaunak aurkeztu duen hirigintza dozierra ez da egiaztatua eta eskaini duzun baimena bera ere ez. Eraikitze baimen bat eman beharko zeniokeen.

Blokeetako etxearen dossier honi buruz, 64 KOren zerbitzuek zuregana jo dute, edo Poirmeur Jauna edo Altxa Zokoa elkartearen aldeko iritzia eskaera batentzat.

2 puntutan erantzun duzu :

1) Ez zara eskuduna ! Ez zara eskudun dozier horretaz iritzia beten emateko ??? (abian jarriak izan ziren ikerketen emaitzak igurikatu gabe Euskal Herri AHLri buruzko delibero bat bozkarazi nahi zenigularik ?)

Zer erantzun harrigarria !

2) Halere, norabide bat emateko zure eskumen eskasari iritzia simple baterako, hirigintza dossier makur horretan aitzinera ekartzen baituzu « Ziburuko Hiriak ezinbestez eskainia » dela !

Auzapez Jauna ziur aski posible da gaur Herriko Kontseilu guziak haren iritzia eman dezan, mozio baten bitartez, Kontseilu Orokorreko biltzar orokorrak Poirmeur Jaunaren aldeko dozierra. Baztertu duelako.

Horrela, **helburu publiko** bat aurreikus daiteke (Ziburutarren onerako) hauteskunde garaian hitz eman zenuen bezala eta horrela borondate politiko ziburutar bat adieraziz.

Gaur egun, zer deritzo Herriko Kontseiluak Sokoako blokeetako etxearen erabilpenaz ?

Pilota ederra igortzen dizut, Auzapez Jauna, espero dut harrapatuko duzula, eta prest naiz zurekin dossier horretan lan egiteko.

Auzapez jaunak zehazten du pausatua izan den eraikitze aitorpena eta, D.D.E / D.H.Z.ko zerbitzuek aztertu ondoren Administrazioak emandako baimena araudia osoki betetzen dutela. Ez da zuzena erratea dosierra makurra dela.

Blokeetako etxearen helburuari dagokionez, Auzapez jaunak oroitarazten du Kontseilu Orokorren jabetza bat dela, Komertzio eta Industria Ganbarari utzia, honek kudea dezan. Ziburuko Hiriak ez du neholako eskumenik gai horretan.

Auzapez jaunak dio hala ere, jabetza honek publiko izaten segitu behar lukeela. Adierazten du DUGUET Anderearekin dossier horretan lan egiteko plazer handia izanen duela.

Gai-ordena agortua izanik, bilkura 20:15etan bukatu da.